

IPUI BERRIYAK.

Asto eta Choriya.

<p>Asto bat nagusiyak belardi batera, eraman zuben, egun batean jatera; gañera zizkan jarri nagusi prestubak, ogi koskor pilla bat ta arto burubak.</p> <p>Astoak janariya ugari zekarren, nai zubena jan, beste lanik etzeukarren; ainbesteraño zuben astuak gogoz jan, geiago nai-ezikan lurrera zan etzan.</p> <p>Choriyak ikusirik arto-ale asko, astuak nai-ezikan utziya zalako, esan zuten «askotan onela aukera, ez dek billatzen eta guazemak jatera.»</p> <p>Joan ziran beriala; asi ziran jaten; baña astoak nola ikusten zituben, diyo «aguro biyak zuzate emendik, bestela ostikoka ilko zaituztet nik.» Choriyak beriala</p>	<p>esan zuten «jauna: nola ikusi degun jateko au dana, iruriturik dala utziya nai-ezik, biyak etorri gera jatera, bai, pozik; bada ezpaldinbadu nai guk au jatia, etzaigu ezer ere kostatzen joatia.»</p> <p>Astoak arrazoya aitu gabetanik, asi-zan ostikoka biyak chetu nairik, baña-jo-bearrian ostikoz, choriya, ainbeste indar-ekin jo zuben arriya, autsi zuben kañara, gañera iztarra, odol usturik iltzan asto gizacharra.</p> <p>.</p> <p>Au bera gertatzen da gizon batzuekin, berak ase nai dute besterenarekin; eta iñor beartzen bada berenakin, ordaintzen dute berak ostikuarekin</p>
--	--

JOSÉ ARTOLA.

(1) Fábulas premiadas con un objeto de arte en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1886.